



## **Aditzak, nominalizazioa eta izen-sintagma konplexuak euskarazko testu akademikoetan**

### **ECTS kopurua**

2

### **MODALITATEA**

Online

4 ordu sinkrono (maiatzak 25 eta 29) eta 16 ordu asinkrono (aurrez aurreko eta onlineko tutoretzak)

### **EGUTEGIA**

2026-05-25/2026-06-30

### **IRAKASLEAK**

Izaskun Aldezabal  
Igone Zabala

### **IKASTAROAREN EDUKIA**

Aditzak perpausen egitura erabakitzen duten hizkuntza-elementuak dira eta, beraz, diskurtsoaren eraikuntzarako ezinbesteko unitateak. Nolanahi ere, nominalizazioa, alegia, aditzak eta adjektiboak izen bihurtzeko prozesua ere, funtsezkoa da diskurtsoaren eraikuntzarako. Are gehiago, testu akademikoen bereizgarri garrantzitsuenetako batzuk dira erabiltzen diren aditzak, horiek aktibatzen duten semantika, eta nominalizazioa ustiatzeko joera askoz ere handiagoa da beste testu-genero batzuetan baino. Nominalizaziorako joeraren ondorioz, testu akademikoetan beste testu-genero batzuetan baino izen-sintagma konplexuagoak erabiltzen dira. Hortaz, testu akademiko zuzenak eta egokiak ekoizteko, nahitaezkoa da aditzen hautapena, sintaxia eta semantika egokiro kudeatzea, baita aditz-kohesiorako mekanismoak kudeatzea ere. Halaber, funtsezkoa da nominalizazio-estrategiak eta horiek diskurtsoan dituzten funtzioak egokiro kudeatzea, baita izen-sintagma konplexuak ekoizten jakitea ere. Euskara duela hamarkada batzuk hasi zen erabiltzen testu-genero akademikoetan, besteak beste, doktoretza-tesiak idazteko eta ahoz defendatzeko. Hitzunek unibertsitatean ikasten dituzte erregistro akademikoen bereizgarriak, komunikazio akademikorako erabiltzen dituzten hizkuntzetan baina, euskararen kasuan, zailtasun handiagoak dituzte ikasleek beste hizkuntza batzuetan baino. Izan ere, euskarazko testu akademikoen inputa askoz ere mugatuagoa da beste hizkuntzetakoa baino eta, gainera, erregistro akademikoak erabat finkatzeko denborarik egon ez denez, badira erabilerarekin biderkatzen doazen egitura eta esamolde desegokiak edota okerrak. Hauexek dira ikastaroan landuko diren gaiak.

1. Aditzen sailkapena sintaxi-lanetan
2. Aditz-kohesioa testu akademikoetan
3. Testu akademikoetako aditzen ezaugarriak eta motak
  - 3.1. Diskurtsoaren garapenarekin lotutako aditzak



3.2. Aditz modalak

3.3. Ikerketaren xehetasunekin lotutako aditzak

4. Gertaeraren gaineko kontrola
5. Aditzen hautapena: zehaztasuna eta kalkoa
6. Aditz-lokuzioak eta predikatu konplexuak
7. Nominalizazio-estrategiak
8. Izen-sintagma konplexuak

## **IRAKASKUNTZA-HELBURUAK**

- Testu akademikoetan ohikoak diren aditzen erregimenaren ezagutzatik abiatuta, horiek islatzen dituzten perpausak zuzen eraikitzea, argumentu-egitura eta komunztadura egokiro gauzatu.
- Aditzen morfologiari, semantikari eta erregimenari buruzko zalantzak argitzea hiztegiak eta kontsultaguneak erabiliz.
- Testu akademikoetan erabiltzen diren aditzen semantikaren azterketaren ezagutzatik abiatuta, norberaren testu akademikoak ekoizteko orduan aditzen hautapen egokiak egitea.
- Testu akademikoetan ohikoak diren aditz-kohesiorako mekanismoen ezagutzatik abiatuta, norberaren testu akademikoetan aditz-kohesioa zaintzea.
- Aditz-lokuzioek diskurtsoan izaten duten jokaeraren ezagutzatik abiatuta, diskurtsoaren eraginkortasunerako egokienak diren hitz-hurrenkerak hautatzea.
- Nominalizazio-eskalaren mailen ezagutzatik abiatuta, testuinguru bakoitzak eskatzen duen nominalizazio-estrategia egokia hautatzea.
- Izen-sintagma konplexuak zuzen eta egokiro eraikitzea.

## **EBALUAZIORAKO METODOLOGIA**

Ikastaroan hainbat material mota jarriko dira ikasleen eskura (txostenak, artikuluak, bideoak...). Ikasleek material horiek landu beharko dituzte ezarritako epean, eta edukiak hobeto ulertzeko eta aplikatzeko ikastaroan bertan jarriko diren autozuzendutako galdetegiak egin beharko dituzte nahitaez. Horretaz gain, haien doktoretza-tesiaren zati bat berrikusten joango dira gaiak landu ahala. Zalantzak argitzeko, foro bat edukiko dute eskura, eta aurrez aurreko tutoretzak ere eskatu ahal izango dituzte ikasleek.

Azken ebaluazioa bi tresnatan oinarrituko da:

- a) Galdera teorikoak eta praktikoak izango dituen galdetegi bat.
- b) Aukeratu duten doktoretza-tesiaren zatiaren azterketa metalinguistikoa, eta berrikusitako testua.

## **EBALUAZIO-IRIZPIDEAK**

- Ebaluazio-galdetegiko galdera teorikoak eta Interneteko kontsulta-baliabideekin lotutako galderak egokiro erantzutea. % 5
- Ebaluazio-galdetegian, testuinguruaren araberrako aditz-kohesiorako mekanismo egokiak identifikatzea. % 5
- Ebaluazio-galdetegian, aditz kategoriako hiztegi-elementu egokiak eta sintaxi zuzena hautatzea. %10



- Ebaluazio-galdetegian nominalizazio-eskalako elementu egokiak hautatzea testuinguruaren arabera. % 10
- Ebaluazio-galdetegian, zuzen eraikitako izen-sintagma konplexuak identifikatzea. % 10
- Norberak idatzitako tesi-zatiaren azterketa metalinguistiko egokia egitea. % 30
- Norberak idatzitako tesi-zatian, ikastaroan landutako elementuen berrikuspena egokiro egitea. % 30